


**BENEDIKTO XVI.A ETA  
PIERGIORGIO ODIFREDDI**

Bata fededuna eta Erromako Aita Santu ohia. Bestea fedebakoa eta matematikaria. Odifreddik liburu bat idatzi izan dau izenburu honegaz: “Caro Papa, ti scrivo”. Liburu hori orain dala urte mordo bat Ratzingerrek idatzitako “Kristautasunerako sarrera” deritxon liburuari egindako kritika gogor bat da. Karta baten bidez erantzuten deutso Aita Santu ohiak Oddifreddiri. Abuztuaren 30ean idatzitako karta hau sei sailetan banatuta dator. Nire asmoa karta honen erantzun batzuk jasotea baino ez da. Hori bai, neuretzat deigarrienak direnak izango ditut gogoan. Ratzinger eta Odifreddiren arteko alkarrizketak benetan leiala, irekia eta gogorra dirudi.

I

Odifreddiren tesi nagusia hauxe da: “Jaungoikoa pertsona adimenduna dala eta kontzientzia daukala esatea, antropomorfismo hutsa besterik ez da. Matematika eta zientzia dira benetako erlijioa eta beste guztia siniskeria baino ez da”.

Aita Santu ohiak dinotso: “Jaungoikoari buruzko gure berbak eta gure kontzeptuak eta gure irudiak oso-osorik bestelakoak dira. Gure kontzeptuak Jaungoikoari buruz analogikoak dira, hau da, ez-antzekotasuna askoz ere handiagoa da antzekotasuna baino. Pertsona adimenduna eta kontzientzia daukala dinogunean ere, ez dogu bein ere ahaztuten kontzeptu analogikoa darabilgula bitarteko. Holakoa da gure berbetea



Jaungoikoari buruz. Beti ere Jaungoikoaren misterioaren ulertezintasunak hor jarraitzen dau.

Premisa hau kontuan hartuta, esan behar da Jaungoikoa adimena eta kontzientzia dituan pertsona dala. Ezin dot ulertu zure prozedura, hasieran, Logos maiuskularen ordeztu, logos matematikoa minuskulaz jartea. Hasierako Logos beste logos guztien gainetik dagoalako.

Benetan bai kristau fedeak eta bai greziar filosofo handienak, logos minuskulatik Logos maiuskulara, emon eben pausoa. Mundu esperimentaletik mundu metafisikora emoten dan pausoa danez, ezin da salto hori sinpleki demostratu. Hori halan izan arren, salto hori emotea, gitxienez, ez emotea baizen arrazoizkoa da. Uste dot gainera, salto hau emoten ez dauana ere funtsezko arazo importante baten aurrean aurkitzen dala. Hauxe da nire alkarrizketaren muina zugaz. Martin Buberrek inoan “beharbada hori nahi neuke begi-bistan izan dagiela egia bila dabizanak. Bai saltoa emoten dabenak eta bai emoten ez dabenak egia zintzo bilatzen egon behar dabe. Hori premiazkoa da. Baina zuk, nire ustez, dogmatikoki hartu dozu erabakia egia ez bilatzeko. Dagoeneko ez dozu galderarik ere egiten, zuk bakarrik nahi dozuna da ni doktrinatzea”.

## II

Bigarren zatiaren gai nagusia eboluzionismoa dogu. Hone-taz Odifreddik itsu-itsuan onartzen ditu Darwinen lau lege tipologikoak landaren eta animalien eta gizakien eboluzioa azaltzeko.

Ratzingerren erantzuna Jacques Monoden eta Joachim Bauerren ikerkerketetan oinarritzen da. Biok zientzilariak ditugu. Bata, Jacques Monod, biologoa eta Nobel saria fisiologian jasotakoa eta bestea, Joachim Bauer mediku psikiatra eta Friburgoko Unibertsitateko irakaslea.

Hona hemen Aita Santu ohiaren berbak: “Jacques Monod-ek garbi erakusten dau, azken baten, ez dakigula zelako prozesuak jarraitzen dabezan zentzuz beteriko ADN barriak sortzen diran bakoitzean, baita Joachim mediku zientzialariak ere argi frogatzen ditu darwinismoaren errakuntzak gizarte arazoak azaltzerakoan. “Natura” hitza darabilzu sarritan gauzak aztertzean, baina ez dozu inoiz definitzen nor edo zer dan “Natura” hori, adimen bako jainkotxo bat dirudi. Konputagai-luen etsenpluak (“adimen artifiziala”) ez dau balio, ze pertsona adimendunak tresnei jarritako legeen arabera jokatzeko dabelako eta zuk adimenaren argia ukatzen dozu eboluzioaren prozesuan. Esan beharra dago eboluzioaren inguruan eta beste zientzia askotan ere zientzia-fikzio lartxo dagoala... Esaterako, unibertsoaren hasiera eta amaiera azaltzeko darabilzuzan Heisenberg edo Schrödingerren edo beste zenbaiten teoriak niretzat errealitateari oratzeko egindako asmaketa fantasiatsuak baino ez dira”.

### III

Piergiorgio Odifreddik askotan errepikatzen dau teologia “zientzia-fikzioa” dala. Eta Ratzinger Aita Santuak labur-labur dinotso: “Hori holan bada, harritu egiten nozu hainbeste arduratzeaz, nire liburua hain zehatz aztertzen dozunez. Ziurtasun osoz, matematika da hertsiki zientzia. Hemen ere, zugandik ikasi dot arimetikaren eta geometriaren espezifikotasuna eta horrek bakoitzaren prozedura eskatzen dauala. Jakintzagaie-tan inportanteena da ziurtatzeko posible diran metodoak erabiltzea, bidegabetasuna kanporatzea eta jakintzagai bakoitzaren arrazionaltasuna sustatzea.

Onartu behar zenduke, teologiak bai historia mailan eta bai filosofia mailan emoitza iraunkorrak sortu dituala. Besteak beste, teologiaren eginkizun inportante bat da erlijioa arrazoiari lotuta mantentzea eta arrazoia erlijioari. Bi betebeharroneek gizakiarentzat oso garrantzizkoak dira. Habermasekin

izan neban alkarrizketan garbi laga nebazan erlijioaren patologia batzuk eta baita arrazoiaren patologiak ere, erlijioarenak baino arriskutsuagoak diranez. Erlijioa eta arrazoia alkartuta mantentzea da teologiaren zeregina”.

#### IV

Laugarren sailean moral katolikoaren arazoak ditu kontuan. Batez ere eleizgizon batzuen pederastia astintzen ez da anka-motza Piergiorgio.

“Huts honetaz, dinotso Ratzingerrek, zuk ondo dakizu, zelako sufrimenduak eta penak hartu izan dodazan. Ez ditut inoiz ere kasu honeek tapatu eta ezkutatu. Honenbesteko txarkeria fede munduan sartzeak, alde batetik itzelezko bihotz-mina emon deust eta bestetik ahalegin guztiak egin ditut holako kasuak errepikatu ez daitezkan. Nahiz eta poztuteko motiboa ez izan, baita esan behar da, eleizgizon pederasten kopurua ez dala beste edozein profesio antzekoetan emoten dana baino handiagoa. Edozelan ere, ez da hots handiz iragarrri behar, katolikoan huts espezifikoa balitz bezala.


Ez bada bidezkoa Eleizaren hutsak isildutea, baina ezta Eleizaren barnean historian zehar sortutako ontasuna eta edertasuna eta maitasunez beteriko ekintzak isildutea ere. Kristau fedea emondako pertsonaia bikain eta garbi batzuk gogoratzea baino ez daukagu: San Benito eta Santa Eskolastika, San Frantzisko Asiskoa eta Santa Klara, Santa Teresa eta San Juan Kurutzekoa, San Bizente Paul eta Santa Teresa Kalkutakoa eta abar. Gaur egun ere, hainbat eta hainbat ari dira fedearen eraginez mundu zabalean musu-truke pobreen eta gaixoen eta alboratuen zerbitzuan. Ordainezinezko lan eder honi uko egingo baleutso Eleizak, hondamen negargarria izango litzake gizartearentzat. Ezin dozu ahaztu arte ederretan Eleizaren emaitzak historian zehar. Italian baino hobeto ez da beste inon nabaritzen hori. Baita gogoratu, fedeari esker sortutako

sekulako musika ederra: kantu gregoriantik hasi eta Palestrina, Bach, Mozart, Haydn, Beethoven, Bruckner, Brahms eta beste hainbat musikari bikain”.

V

Bosgarren zatiaren arlo eztabaidatuena Jesukristori buruzkoa da. Odifreddiren tentelkeriak eta mespretxuak Jesukristoren aurka, min galanta emon deutsoe Aita Santu ohiari. Saminduta nabaritzen da bere erantzunetan:

“Jesukristori buruz dinozuna, ez dagokio zu bezalako zientzialari bati bururatzea. Historikoki Jesusi buruz berba egiteko, kompetentzia handiagoa behar zenduke. Horretarako benetan eskatuten deusut, batez ere, Martin Hengelek Maria Schwer-



meren laguntzaz argitaratutako lau liburuak irakurtzea. Jaki-nean nago, exegesi mailan ere, seriotasun bako makina bat gauza idatzi dirala. Hori ezin leiteke ukatu. Zuk darabilzuzan Ipar Amerikako “Jesusen Seminarioko” ikerketak, Albert Schweitzeren ideiak baino ez dituzu. Eta gaur egun, ikerketa horreek gaindituta dagoz.

Ez zenduke Jesukristoren aurka holako irain zatarrrik bota behar, besterik ez bada, bere hainbat eta hainbat jarraitzaileen errespetuz eta begirunez. Gainera teologiaren gaiak historikoki lantzean, hobeto jakinean jarteko premia daukazu”.

## VI

Karta honen azken zatian, Joseph Ratzinger Aita Santu ohiak hiru hutsune nabaritzen ditu Odifreddiren “matematika-erlijioan”: askatasuna, maitasuna eta gaitza:

“Harritzekoa da zure “matematika-erlijioan”, gaurko gizadi modernoaren hiru funtsezko elementuei buruz ia aipamenik ere ez agertzea. Behin bakarrik zeharka aipamentxo bat besterik ez daukazu askatasunari buruz. Danok dakigu zelako garrantzia daukon askatasunak gure gizartean. Maitasuna existitzen danik ere ez! Eta gaitza dala eta tautik ez. Zure “matematika-erlijioan” arraro egiten jataz hutsune horreek! Holako zuloak daukazan erlijioa barrutik hutsik aurkitzen da. Ez dauko bihotzik”.

Badira karta honetan beste gai batzuei buruz emondako erantzunak ere. Baina erantzunik sakonenak, nire ustez, hemen aurrean laburtuta aurkeztu dodazanak izango dira.

*A. Olea*